

VI. PLANGINTZALDIA
(2018-2022)

SORALUZEKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA

Hizkuntza Politikaren Zerbitzua

2018ko abenduaren 19an

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

- 1.1.- Gaur egungo egoera.
- 1.2.- Planaren aurrekariak.
- 1.3.- Planaren testuingurua.
- 1.4.- Planaren iraunaldia.
- 1.5.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea.

2.- HELBURUAK

- 2.1.- Xede nagusia.
- 2.2.- Helburu orokorrak.
- 2.3.- Hizkuntza normalizaziorako neurriak.
 - 2.3.1.- Lehen helburuko neurriak.
 - 2.3.2.- Bigarren helburuko neurriak.
 - 2.3.3.- Hirugarren helburuko neurriak.
 - 2.3.4.- Laugarren helburuko neurriak.
 - 2.3.5.- Lehenengo zehar-lerrorako neurriak.
 - 2.3.6.- Bigarren zehar-lerrorako neurriak.

3.- HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA

- 3.1.- Erakunde-ordezkarien jarduna.
- 3.2.- Harreman komunikatiboak.
 - 3.2.1.- Ahozko harremanak.
 - 3.2.2.- Idatzizko harremanak.
 - 3.2.3.- Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak.
 - 3.2.4.- Idazketa elebiduna.
 - 3.2.5.- Bilerak.
- 3.3.- Langileen prestakuntza orokorra.
- 3.4.- Sarrera eta irteera erregistroak.
- 3.5.- Tresna eta aplikazio informatikoak.
- 3.6.- Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa.
- 3.7.- Kontratazio administratiboak.
- 3.8.- Kultur, kirol eta aisia elkarteei diru-laguntzak.
- 3.9.- Komunikabideetatik hedatutako berriak.
- 3.10. Toponimoak.

4.- ADMINISTRAZIO ATALAK VI. PLANGINTZALDIAN

- 4.1.- Administrazio-atalen sailkapena.
- 4.2.- Lanpostu kopurua administrazio atalka eta atalaren izaera.
- 4.3.- Administrazio atal bakoitzerako helburuak.

5.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN DATAK

- 5.1.- Lanpostuei buruzko datuak.
 - 5.1.1.- Lanpostuen hizkuntza eskakizunak.
 - 5.1.2.- Lanpostuen derrigortasun datak.
 - 5.1.3.- Lanpostuen zerrenda.

6.- PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

7.- ANTOLAKUNTZA EGITURAK ETA BALIABIDEAK.

1.- SARRERA

1.1.- Gaur egungo egoera

Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak argi eta garbi ezartzen du herritarrek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela, eta herri administrazioek bermatu behar dietela eskubide hori. Azken batean, euskarak ere zerbitzu-hizkuntza izan behar du herritarrekiko hartu emanetan; lan-hizkuntza, herri-administrazioen arteko komunikazioetan eta herri-administrazio barruko jardunean. Izan ere, herritarrak eurek hautatutako hizkuntzan artatuak izango direla bermatzeko modurik eraginkorrena da euskaraz ere normaltasunez lan egiten duen herri-administrazioa lortzea; eta hori lortze aldera eta euskara egoera ahulagoan dagoenez, herri-administrazioek akzio positiboak ezarri behar dituzte euskararen alde.

1.2.- Planaren aurrekariak

Ezaguna denez, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldia 1990ean jarri zen martxan, eta orain arte, bost izan dira:

- I. Plangintzaldiaren (1990-1995) helburua izan zen herri-administrazioetako langileak arian-arian gaitzea, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jarduteko; horretan egin ziren ahaleginik handienak, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak esleitzen, langileak euskalduntzen eta alfabetatzen, eta abar.
- II. Plangintzaldian (1997-2002), langileak euskalduntzeaz eta alfabetatzeaz gain, euskararen erabilera planen presentzia orokortzeko apustua egin zen. 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ekarri zien herri-administrazio guztiei.
- III. Plangintzaldian (2003-2007), langileak euskalduntzen jarraitzeko neurriak ahaztu gabe, oinarri teoriko sendoak jarri ziren euskararen erabilerak gora egin zezan: herri-administrazio atalak eta lehentasunak definitu ziren, AEBEMET metodologia, hizkuntza normalizatzeko neurriak, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak... Administrazioko langileak gero eta euskaldunagoak ziren, baina euskararen erabilera ez zen neurri berean hazten, eta hura bilakatu zen erronkarik handiena.
- IV. Plangintzaldiak (2008-2012) aldaketa handia ekarri zuen: planifikazio zehatz bat jarri zen martxan, euskara ere ohiko lan-hizkuntza bihurtzeko, gaztelaniaren parean jarrita, bi hizkuntzen berdintasuna sustatuz horrela. Plangintzaldi hartan finkatu ziren azterketa komunikatiboak, berariazko hizkuntza prestakuntzaren garrantzia...
- V. Plangintzaldia (2013-2017) etorri zen gero, eta argi eta garbi ezarri zuen helmuga: euskara ere herri administrazioetako jarduneko ohiko lan-hizkuntza izatea. Datuek erakusten dutenez, Udalak neurri handi batean bermatzen dituzte herritarrekiko euskarazko komunikazioak; era berean, prestatuta dago, gehiago edo gutxiago, euskaraz lan egiteko; alabaina, oraindik ere gaztelania da zenbait administrazio-ataletan lan-hizkuntza nagusia, eta handia da itzulpenekiko mendekotasuna.

VI. Plangintzaldira iritsi gara, eta plangintzaldi hau, oroz gainera, euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratuko duen kudeaketa eredu berriaren plangintzaldia izango da. Euskararen kudeaketak erakundearen kudeaketa orokorraren barruan egon behar du txertatuta; ezin daiteke geratu kudeaketa orokorretik kanpo. Aldi berean, erakundearen helburu nagusiek uztartuta egon behar dute euskararen erabileraren normalizazioarekin.

1.3.- Planaren testuingurua

Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren **4. artikuluan** arabera, herri administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua hezurramitu dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar du. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio eta, hala dagokionean, derrigortasun-data ere bai.

Dekretu berberaren **18. artikulua** dioenez, entitate bakoitzak dagozkion normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan, bertan, honako hauek jasoko direlarik:

- A) Erakundearen gaur egungo hizkuntza egoera azalduko da eta, horrez gainera, lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun ezarri zaion eta, hala badagokio derrigortasun-data ere zehaztuko da. Era berean, euskara-maila eta langileen hizkuntza gaitasun-prozesuari buruzko informazioa ere jasoko da.
- B) Entitatearen hizkuntza helburuen arabera, zenbat administrazio-atal elebidun eta euskarazko sortuko diren proposatuko da eta, era berean, zehatz-mehatz azalduko da zein lanpostuk osatzen duten atal bakoitza eta zein diren ezarri edo, hala badagokio, moldatuko diren derrigorrezko hizkuntza eskakizunak.
- C) Ondo zehaztuko da zein neurri hartuko den administrazio-atal elebidunek eta, batez ere, euskarazko administrazio atalek aurrera egin dezaten. Era berean, zehatz-mehatz azalduko da euskara nola erabili eta tratatuko den ondorengo esparruetan: administratuekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntza paisaian eta, oro har, aipatutako hizkuntza helburuak betetzeko erakunde bakoitzak ezartzen dituen gainerako jarduera-esparruetan.
- D) Kontratazio arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezten.

Dekretu horren **19. artikuluan** xedatzen denez, euskal herri administrazioek euskararen erabileraren normalizaziorako planak onartuko dituzte plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, eta horrelakorik onartuta duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak.

Xedapen horiei guztiei jarraituz, eta Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak esaten duena betez, Soraluzeko Udalak prestatu du dagoeneko **VI. Plangintzaldia** gidatuko duen bere erabilera plana.

1.4.- Planaren iraunaldia

Herri Administrazioetan bost urte irauten duten plangintzaldien bidez bultzatzen da euskararen erabileraren normalizazioa. Plan horien bitartez, hizkuntza-eskakizunetaz gainera, bestelako esparruak ere arautzen dira: hizkuntza irizpideak, euskara bultzatzeko neurriak, eta abar.

Soraluzeko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2022ko abenduaren 31n bukatuko da.

1.5.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea

Bereziki kontuan hartu behar da 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Hizkuntza politikaren gainean honakoak aipatzen dira, 6. eta 7. Artikuluetan, hurrenez hurren:

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu beharko da herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-erakundeekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea eta, hortaz toki-erakundeek hizkuntza horretan artatzeko duten betebeharra, hartarako behar diren neurriak harturik.

Euskarari eta gaztelaniari aitortutako ofizialtasunaren arabera, bai euskara toki-erakundeen ekintzetan erabiltzea, bai gaztelania ekintza horietan erabiltzea, balio juridiko osokoak izango dira, betiere eragotzi gabe toki-erakundeek bermatu beharra daukatela, partikularrekiko harremanetan, horiek hautatu duten hizkuntza ofiziala erabiltzea.

Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.

2.- HELBURUAK

2.1.- Xede nagusia

Euskara eta gaztelania izanik hizkuntza ofizialak, plan honen xede nagusia da herritarrak beraiek aukeratutako hizkuntzan artatzea, herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, eta, beraz, aipatutako ofizialtasuna gauzatzeko euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzea.

Horren guztiaren garapenerako nahitaezkoa den lidergoa eta parte-hartzaileen arteko adostasuna gauzatzeko ere plan honen xede izango da.

2.2.-Helburu orokorrak.

Hauek dira VI. plangintzaldi honen helburu orokorrak, sail guztiek guztiek gidari izango dituztenak:

- 1.– Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Soraluzeko Udalarekiko harremanetan, bereziki zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan.
- 2.– Euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak egitea, euskaraz gero eta gehiago sortuz.
- 3.– Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea.
- 4.– Erakunde-ordezkarien lidergoa indartzea euskararen normalizazio prozesua erakundearen ohiko jardunean txertatzeko.

Helburu orokor horiez gain, badira zehar-lerro batzuk, hain zuzen ere, helburu horietan guztietan eragina daukatenak eta horiek guztiak lantzeko lagungarri gertatzen direnak.

1. Langileen eta erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasuna handitzea, erabilera areagotzeko.
2. Langileen eta erakunde-ordezkarien euskararekiko atxikimendua areagotzea euskararen erabileran eragiteko.

2.3- Hizkuntza normalizaziorako neurriak.

Atal honetan jasotzen dira helburu bakoitza lortzeko lagungarri izan daitezkeen neurriak.

2.3.1.- Lehen helburuko neurriak.

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera honako neurri hauek garatuko dira osorik edo partez beharizanen arabera:

- Jendaurreko arreta ematen duten zerbitzuetan eta gizarte izaerako nahiz izaera orokorreko ataletan administrazio atal elebidunak sortzea, eta, neurri apalagoan bada ere, baita euskarazko atalak ere.

- Derrigortasun data egiaztaturik duten lanpostu guztietan funtzio batzuk euskaraz betetzea, sail bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.
- Derrigortasun datak esleitzeari dagokionez, «VI. plangintzaldia. EAEko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak» izeneko dokumentuko irizpideak betetzea.
- Jendaurreko zerbitzua ematen duten zirkuituak aztertzea plana onartu eta hurrengo 6 hilabeteetan, eta horiei eragitea.
- Jendaurreko langileak prestatzea, zerbitzua ematerakoan herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzaten.
- Herritarrei harrera egiteko protokoloak prestatu edota daudenak berrikustea.
- Herritarrei adieraztea zerbitzua euskaraz emateko prestatuta dagoela Administrazioa.
- Irudia euskalduntzea hainbat arlo landuz: kartelgintza, hizkuntza paisaia, argitalpenak, interneteko webguneak eta gizarte sareak, eta abar.
- Dokumentu ereduak eta baliabide informatikoak egokitzea, euskarazko bertsioa beti eskuragarri izan dadin; hizkuntza bietan lan egiteko prestatu gabe dauden baliabideak egokitzeko egutegia egingo da.
- Administrazioarekin euskarazko harremanak izan nahi dituzten herritarrei aukera ematea nahi hori adieraz dezaten; handik aurrera Administrazioak euskarazko harremanak lehenetsiko ditu herritar horiekin izango dituen komunikazioetan.
- Euskarazko komunikazioen kalitatea bermatzea ahozkoan eta idatzizkoan.

2.3.2.- Bigarren helburuko neurriak.

Euskara lan hizkuntza izateko bidean aurrerapausoak egiteko, betiere euskaraz gero eta gehiago sortuz, neurri hauek garatuko dira osorik edo partez beharrianen arabera:

- Jendaurreko arreta ematen duten zerbitzuetan eta gizarte izaerako nahiz izaera orokorreko ataletan administrazio atal elebidunak sortzea, eta, neurri apalagoan bada ere, baita euskarazko atalak ere.
- Derrigortasun data egiaztaturik duten lanpostu guztietan funtzio batzuk euskaraz betetzea, sail bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.
- Derrigortasun datak esleitzeari dagokionez, «V. plangintzaldia. EAEko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak» izeneko dokumentuko irizpideak betetzea.
- Euskarazko zirkuituak edo atalak izan litezkeenak identifikatu eta abian jartzea, hizkuntzaren eremu guztietan euskaraz ere funtziona dezaten, barrura zein kanpora begira, eta arnagune izaera izan dezaten: ahozkoan, idatzizkoan, bileretan eta abar.

– Euskaraz lan egiteko aukera bermatzea langileei, euskaraz lan egiteak ez dezan lan-karga handiagorik edo bestelako kalterik eragin langilearentzat, eta oztoporik izan ez dezaten euskaraz lan egiten duten langileek.

2.3.3.– Hirugarren helburuko neurriak.

Herri administrazioen arteko harremanetan euskaraz gehiago egin dadin, neurri hauek garatuko dira osorik edo partez beharizanen arabera:

– Jendaurreko arreta ematen duten zerbitzuetan eta gizarte izaerako nahiz izaera orokorreko ataletan administrazio atal elebidunak sortzea, eta, neurri apalagoan bada ere, baita euskarazko atalak ere.

– Derrigortasun data egiaztaturik duten lanpostu guztietan funtzio batzuk euskaraz betetzea, sail bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.

– Derrigortasun datak esleitzeari dagokionez, «VI. plangintzaldia. EAEko herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak» izeneko dokumentuko irizpideak betetzea.

– Administrazioen arteko euskarazko sareen zabalkundea egitea.

– Erakundeen arteko akordioak bultzatzea euren arteko harremanetan euskaraz egin dezaten.

– Soralezko Udalarekin harremanak dituzten administrazioenganako euskarazko eskaria handitzea: dokumentazioa, bilerak, ahozko eta bestelako harremanak euskaraz izan daitezen eskatzea.

2.3.4.- Laugarren helburuko neurriak.

Erakunde-ordezkarien lidergoa indartu eta euskararen normalizazioa erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeko neurri hauek garatuko dira osorik edo partez beharizanen arabera, betiere gunearen egoeraren eta erdietsi nahi diren helburuen arabera, eta langile eta erakunde-ordezkariei guztien inplikazioa bilatuz:

– Erabilera planei buruzko informazioa eta formazioa ematea erakunde-ordezkariei eta langileei.

– Erabilera planen kudeaketa hobetzea hizkuntza normalizazioko teknikarien eta erabilera planean ardura izango duten erakunde-ordezkarien prestakuntza landuz.

– Erabilera planeko batzordeak abian jarri eta funtzionamendu egokiari eustea, plangintzaldi honetarako ezarri den egitura kontuan hartuta.

– Erakunde-ordezkariek euskararen normalizazio prozesuan eredugarri izan daitezen lantzea: eguneroko jardunean, kanpo ekitaldietan eta abar.

– Bideak jorratzea, erakunde-ordezkariek langileei erraztasunak emateko euskara normalizatzeko prozesuan.

2.3.5.– Lehenengo zehar-lerrorako neurriak.

Zehar-lerro honek helburu izango du langileek eta erakunde-ordezkariek hizkuntza gaitasun handiagoa lortzea, betiere euskararen erabilera areagotzera bideratuta. Zehar-lerro hau lantzeko neurri hauek garatuko dira osorik edo partez beharizanen arabera:

- Herri-langileek lana euskaraz egiteko behar duten trebakuntza eskura izatea.
- Hizkuntza gaitasuna hobetzeko prestakuntza planak egitea sailetan atalaren diagnostikoaren eta jarritako helburuen arabera.
- Prestakuntza formatu desberdinak lantzea, besteak beste, aurrez aurrekoa, norbanakoaren eginkizunekin lotua, on line eta berariazko mintegiak.
- Korredakzioa eta idazketa elebiduna lantzea.
- Prestakuntzako eskaintzaren zabalkundea egitea.
- Hizkuntza gaitasuna hobetzeko baliabideak eskura jartzea, hala nola, baliabideak sortu edo dagoeneko sortuta daudenak bildu, zabalkundea egin, euskarazko softwarea lehenetsi eta erabiltzeko prestakuntza eman.
- Lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak berraztertzea, beharrezkoa denetan.

2.3.6.– Bigarren zehar-lerrorako neurriak.

Langileak eta erakunde-ordezkariak euskararen erabileran eragile bihurtzeko atxikimendurako hainbat neurri garatuko dira osorik edo partez beharizanen arabera, atalaren diagnostikoaren eta jarritako helburuen arabera:

- Saioak antolatzea, euskararekiko atxikimendua lantzeko.
- Euskararen normalizazioari eta errealitate soziolinguistikoari buruzko prestakuntza saioak ematea.
- Euskararen erabilera bultzatze aldera, jokabide proaktiboa lantzeko ekintzak antolatzea, hain zuzen ere, besteren eskaeraren zain egon beharrean norberaren ekimenez egitea euskaraz.
- Ahalduntze prozesuak abian jartzea, gaztelaniarako gaur egungo inertzia gainditzeko.

3.- HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA

Hemen jasotakoak bi hizkuntza ofizialen erabilerako jarraibideak dira. Araubide orokorra da eta prozesuaren helmuga markatzen du. Sorauluzeko Udalarentzako eta bertako administrazio-atal guztientzako hizkuntza irizpideak finkatu nahi ditu. Irizpide orokor horiek zehazteko, ordea, sailtako lan-jardunak euskalduntzeko irizpideak garatuko dira; hor deskribatuko dira zehatz-mehatz araubide honetan modu orokorrean ezarritakoak. Lan jardun horietan gauzatu eta gorpuztuko dira, hortaz, araubide honetako irizpide nagusiak eta planaren ebaluazioa egiten den bakoitzean irizpide hauek zenbateraino betetzen ari diren aztertuko da.

Aurreko hori guztia kontuan izanda, hauek dira Sorauluzeko Udalean eta bertako administrazio-ataletan aplikatuko diren hizkuntza irizpideak:

3.1.– Erakunde-ordezkarien jarduna.

Agerraldi publikoetan nola jokatu: gai direnek, oro har, emango diote euskarazko jarduerari gutxienez gaztelaniari ematen dioten pisua, bai denborari dagokionez, bai gaiaren tratamenduari dagokionez. Nolanahi ere, hizkuntza erabilerak egokituko dira agerraldi publiko bakoitzaren helburuak eta hartzaileen hizkuntza ezaugarriak kontuan harturik. Euskaraz jarduteko erraztasunik ez dutenek ere beti egingo diote lekua euskarari agerraldi publikoetan (beren aukeren arabera, ahalik eta egokiena).

3.2.- Harreman komunikatiboak.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpide hauetan ematen dira Sorauluzeko Udalak ahozko harremanetan, idatzizko harremanetan eta komunikazio telematikoetan erabiliko dituzten irizpideak.

3.2.1.– Ahozko harremanak.

a) Herritarrari jendaurreko zerbitzua ematen zaionean, euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da.

Jendaurreko zuzeneko zerbitzua ematen duen langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarrari. Ondoren, administratuak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

b) Herri Administrazioen arteko harremanetan, harrera euskaraz izatea bermatuko da: lehen hitza, alegia. Eta ahalegin berezia egingo da jarraipena ere euskaraz izan dadin, solaskidea euskal hitzuna den kasuetan.

c) Udalaren barruko harremanetan, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere izango da langileen eta erakunde-ordezkarien arteko ahozko harremanetan eta eguneroko zereginetan. Horretarako, sail bakoitzaren lan-jardunak euskalduntzeko irizpideetan egongo da jasota euskaraz egingo diren jardunak eta zereginak (lan bilerak, etab.).

3.2.2.– Idatzizko harremanak.

a) Sorluzeko Udala dokumentu-igorlea denean (herritarrari, beste herri administrazio bati...), komunikazioa ele bietan egingo da, baldin eta hartzaileak berariaz hizkuntza bat aukeratzen ez badu, edo jasotzailea den Herri Administrazioarekin adostu ez bada hizkuntza jakin bat erabiltzea. Bideak jarriko dira, adostasuna oinarri izanda, euskararen erabilera sustatzeko, bai herritarrekin, bai gainerako herri administrazioekin.

Espediente edo prozedura administratiboan pertsona batek baino gehiagok hartzen badu parte eta hizkuntzaren gainean ados jartzen ez badira, espediente edo prozedura bultzatu duen pertsonak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da. Hori bai, betiere besteen hizkuntza eskubideak errespetatuz, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarritz.

Hori horrela izanda ere, Sorluzeko Udalak euskaraz igorriko ditu idatziak baldin eta egoera hauetako bat gertatzen bada:

1.– Herritarrak edo beste administrazioak alde aurretik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela.

2.– Igorlea euskarazko atala bada, edo atal elebidunen batean lan jardunen bat euskaraz egitea ebatzen bada.

3.– Ohiko harremanak euskarazkoak badira; horrelakoetan, euskararen aldeko hautua egin dela ulertuko da.

b) Sorluzeko Udalak dokumentua jaso eta erantzun behar duenean, honela jokatu du (herritarrari zerbitzu ematean edo beste administrazio batzuekin harremanak ezartzean):

1.– Euskaraz jasotako idazkiari euskaraz erantzungo dio.

2.– Gaztelaniaz jasotako idatziari, oro har, ele bietan erantzungo dio, lan-jardunak euskalduntzeko zehazten diren irizpideek besterik esaten ez badute.

3.2.3.- Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak.

Irizpide hauek izango ditugu kontuan testu elebidunak idazteko garaian:

1.– Kokapena: hitzak direnean, euskara aurrean edo gainean; orrialde bereko zutabeak direnean, ezkerrekoa euskararentzat; eta orrialdeka idazten denean, eskuinaldekoa euskararentzat.

Orri bakarraren alde banatan idazten bada (alde batean euskaraz, eta bestean gaztelaniaz) orria gutun-azalean sartzekoan, gutun-azala irekitakoan euskarazkoak izan behar du irakurtzen den lehena. Triptikoak ere modu egokian tolestu eta aurkeztuko dira.

2.– Tipografia: letraren neurria eta mota ere erabil daitezke euskara nabarmentzeko; horretara, euskara letra handiagoarekin edo lodiarekin idatziko da. Testurako, bi hizkuntzetan letra zuzena (normala) erabiltzea da egokiena. Horrelakoetan, testutik

kanpoko osagai komunak (hartzailearen datuak, helbideak, igortzailearen zehaztasunak...) euskaraz emango dira.

3.2.4.– Idazketa elebiduna.

Mendekotasun hori bazter uzteko, Soraluzeke Udalak, ahal den neurrian, bermatuko du administrazioko agiri elebidunak sortuko direla itzulpen zerbitzuetara sistematikoki jo gabe. Azken batean, informazioa komunikatzea da Udalaren zeregina, bi hizkuntza-komunitate ezberdinei komunikatzea, alegia; eta horretarako ez dago itzulpenen beharrik: nahikoa da zabaldu beharreko mezua bi hizkuntzetan sortu eta ematea, betiere edukia errespetatuz, baina estiloa hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta. Idazketa elebidunaren prozesu hori errazteko, Udalak baliabideak jarriko ditu bere erabilera planean ezarritakoaren arabera, besteak beste:

- Langileentzako laguntza pertsonalizatuak.
- Idazki eredu normalizatuak.
- Kontsulta zerbitzuak.
- Informatikako tresnak.
- Etab.

3.2.5.- Bilerak

Sail edo administrazio-atal bakoitzaren irizpideetan zehaztuko dira jarraibideak, barneko bilera formalak, kanpoko bilera formalak, bileretako dokumentazioa, bilera horietatik sortutako dokumentazioa eta bilerei dagozkien gainerako irizpideak. Nolanahi ere den, arau orokor gisa, euskaraz egingo dira barneko zein kanpoko bilerak kide denak euskaraz ulertzeko gai direnean, ulertzeko gaitasuna baino ez duten horiek erabil dezaketen hizkuntza gora-behera.

3.3.- Langileen prestakuntza orokorra.

Prestakuntza euskaraz eskainiko zaie Soraluzeke Udaleko langileei, prestakuntzaren balizko hartzaile diren langile guztiak euskaldunak direnean.

3.4.– Sarrera eta irteera erregistroa.

Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan jasoko da dokumentazioa zein hizkuntzatan sartu edo irten den.

Soraluzeko Udalako erregistro administratiboetan dokumentuen inskripzioa euskaraz egingo da, behar den guztietan ziurtatuko delarik inskripzioaren itzulpena, erregistroa kontsultatu nahi duen herritarraren hizkuntza hautapena errespetatzeko.

3.5.– Tresna eta aplikazio informatikoak.

Bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira programa informatiko komertzial edo orokorrak eta Udalak berak erabiltzeko berariaz sortzen dituen programa edo tresna informatikoak.

Udala arduratuko da, erabilera plana oinarri hartuta, hemendik aurrera sortzen diren aplikazioetan irizpide hori betetzen. Eta erabilgarri dauden programa informatikoak euskaraz lan egiteko prestaturik ez daudenean, sail bakoitzak egutegi bat egingo dute tresna informatiko horiek berritu, egokitu eta hizkuntza irizpide horiei lotzeko.

Programa berriak sortu edo erosi baino lehen prozesuaren hasiera-hasieratik kontuan hartuko dira aukera bakoitzaren hizkuntza ezaugarriak hizkuntza irizpide hauek betetzeari begira.

Nolanahi ere, euskarazko bertsioaren erabilera hobetsiko da derrigortasun data ezarrita izan eta dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten lanpostuetan.

3.6.– Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa.

Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak) euskaraz eta gaztelaniaz agertuko dira, bulego, egoitza zein lagatako lokal guztietako kanpoaldean eta barrualdean, baldin eta herritarrei zuzendutakoak direnean; udaleko langileentzako baino ez direnetan, euskara hutsean agertuko dira.

3.7.- Kontratazio administratiboak.

Soraluzeko Udalaren Kontratu publikoek nahitaez bete beharko dute, gutxienez, euskararen ofizialtasuna jasotzen duen araubidea:

- EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.
- EAEko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina (2011).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa.
- Soraluzeko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen udal ordenantza.

Honela bada, kontratazio-arloan erabiliko diren neurriek udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak bermatzeko helburua izango dute: oro har, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betearaziko da, baina, Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek hala eskatzen badute, hainbat kontratu euskaraz gauzatzeko neurriak ezarriko dira (berezko ezaugarriak hauek izan daitezke: zerbitzuaren jardueraren gaia; xede taldea; Administrazioaren hizkuntza-araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena).

Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztietan jasoko dira: kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan, bai obra kontratuetan, herri-lanen emakidetan, zerbitzu-kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan. Halaber, baldintza agiri guztietan; baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan.

3.8.- Kultur, kirol eta aisi elkarteei diru laguntzak

Kultur, kirol eta aisi elkarteei diru laguntzak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontuan hartuko da. Ondorioz, Soraluzeko Udalarengandik diru laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren ihardun subentzionatueta zabalitzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, elebrietan egiten duten kasuetan lehentasuna euskarari eman beharko diotelarik, bai kokaeran, luzeran nola tamainan.

Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak, beraz, pilotalekua, hitzaldi-aretoa, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horien berri emango die interesatuei, eta zehaztutako moduan betetzen dituztela zainduko du, fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango delarik hizkuntzari buruzkoa ere.

Halaber, diruz laguntzen diren elkarten barne jardunean eragiten hasteko asmoa dauka aurrerantzean Udalak, diru-laguntzaren kopurua esanguratsua denean. Horrelakoetan hizkuntza normalizazioari begirako neurriak hartzea eskatuko zaie elkarteei.

3.9.- Komunikabideetatik hedatutako berriak

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarki eta oharrak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazkoari lehentasuna emanez -denbora, tamaina, kopuru eta lekuari dagokionean-. Iragarki eta oharrak ordaindutakoak ez direnean, komunikabideei berri horiek bi hizkuntzetan ematea eskatuko zaie.

Udaleko informazioa eta publizitatea euskara hutsean egingo da, euskararen ulermena bermatzen deneko gizarte taldeak direlako, horretarako aukera dagoenean.

Euskarazko gizarte komunikabideak ere kontuan hartuko dira Udalaren mezuak argitara ematerakoan. Horrela, herrialdean zabalpen gehien duen euskarazko egunkarian ere argitaratuko ditu Udalak ordaindutako iragarki eta oharrak.

3.10.- Toponimoak

Soraluzeko udalerriko kale, auzo, auzune eta industrialdeen izenak idazterako orduan bi mila eta bederatziko uztailaren hiruan Udalbatzak onartutako zerrenda ofiziala erabiliko da.

Bide, mendi, ibai eta erreken izenak arautu gabe dauzka oraindik Udalak, bilketa-lana eginda dagoen arren. Arautze lan hori datorren urtean zehar amaitzea da asmoa eta aurrera begira horixe izango da udalak izenok idazterakoan erabiliko duen tresna.

4.- ADMINISTRAZIO ATALAK VI. PLANGINTZALDIAN

4.1. Administrazio-atalen sailkapena.

Honako era honetara sailkatzen dira administrazio atalak:

Jendaurrekoak: Beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen dena.

Gizarte-mailakoak: Herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak direnean.

Orokorrak: Beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean geratzen denean.

Bereziak: Baliabide eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak dira. Eskuz egindako lanak burutzen dituzte, batez ere, eraikinen mantenua, kontserbazio-lanak, obra, garbiketa.

86/ 1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, euren zereginak Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak plan honen ondorioetarako. Euskarazko administrazio-atalak bere zereginetan batez ere euskaraz aritzen direnak izango dira.

4.2. lanpostu kopurua administrazio atalka eta atalen izaera

ATALA	LANP.	KOP.IZAERA	JENDAURREKO LAN. KOP
IDAZKARITZA:	4	OROKORRA.	4
DIRUZAINITZA:	2	OROKORRA	1
HIRIGINTZA:	5	OROKORRA/BEREZIA	1
KIROLA	1	OROKORRA	1
UDALTZAINGOA	5	GIZARTE-MAILAKOA	5
KULTURA:	2(*)	GIZARTE-MAILAKOA	2
GAZTERIA:	2(*)	GIZARTE-MAILAKOA	3
HEZKUNTZA:	1(*)	GIZARTE-MAILAKOA	1
EUSKARA	1(*)	GIZARTE-MAILAKOA	1
G. ONGIZATEA:	6	GIZARTE-MAILAKOA	6

(*) Ikur hau duten atalek langileetako bat edota langilea amankomunean dute, pertsona bakarrak betetzen baititu euskara, kultura, hezkuntza eta gazteria ataleko teknikari zereginak.

4.3.- Administrazio atal bakoitzerako helburuak

Euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatuz joan dadin, Dekretuak gutxieneko helburu batzuk ezartzen ditu.

Soraluzeri dagokionean, erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %45 eta %70era bitartekoa izanik, administrazio-atal elebidunak jarri behar dira jendaurreko ataletan, gizarte-izaerako ataletan eta izaera orokorrekoetan.

Nolanahi ere den, Soraluzeko Udalak derrigor bete beharreko indizea %67,08 izanik, komenigarria dirudi %70 -%100 tarterako ezarrita dauden helburuei begiratzen hastea eta, horiei jarraiki, pixkanaka, euskarazko administrazio atalak jartzea, batez ere euskaraz arituko direnak, alegia.

Gorago esan dugun moduan, euren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzen dituzten administrazio-atalak dira administrazio-atal elebidunak. Alabaina, atal elebidun beharko luketen guztiak ez daude oraindik hizkuntza bietan jarduteko moduan. Idazkaritzaren kasua da hori, zeinetan atalburuak derrigortasun-data izan bai, baina dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe daukan.

Atal horretan, beraz, mikroplanarekin jarraitzea proposatzen da, harik eta atal elebidun izendatzeko baldintzak ematen diren bitartean. Modu horretan, hainbat neurri zuzentzailearen bitartez, lanpostu horrek euskaraz jarduteko dituen mugak atalean bertan euskaraz lan egiteko moduan dauden langileen jardunean eta administratuekiko nahiz beste erakundeekiko euskarazko harremanean eraginik izan ez dezan lortu beharko da.

Hori horrela, momentuan, derrigortasun data ezarria izanik, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten langile guztiak sartuko dira erabilera planean (23), bai eta dagokion hizkuntza eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatua duen arestian aipatutako Idazkari-kontuhartzaile lanpostua.

Jarraian adierazten dira 2018-2022 plangintzaldiari begira administrazio-atal bakoitzerako finkatu diren helburuak; hau da, plangintzaldi bukaerarako beren zereginak zein hizkuntzatan bete beharko dituen ata bakoitzak, hizkuntza batean zein besteak, ala batez ere euskaraz.

ATALA	HELBURUA
IDAZKARITZA	MIKROPLANA
DIRUZAINNTZA	ELEBIDUNA
HIRIGINTZA	ELEBIDUNA
GIZARTE ONGIZATEA	ELEBIDUNA
UDALTZAINGOA	ELEBIDUNA
KULTURA	EUSKARAZKOA
GAZTERIA	EUSKARAZKOA
HEZKUNTZA	EUSKARAZKOA
EUSKARA	EUSKARAZKOA
KIROLA	EUSKARAZKOA

5.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN DATAK

5.-1. Lanpostuei buruzko datuak.

86/1997 Dekretuak dio Hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun data herri administrazio bakoitzeko lanpostu zerrendan nahitaez eman beharrekoa zehaztapenetan agertuko direla.

5.1.1. Lanpostuen Hizkuntza Eskakizunak

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun dagokion eta lanposturen bati dagokion hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez bada, euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da, bai lanpostuak betetzerakoan, bai langileak hartzerakoan.

Gaur egun 26 lanpostuk osatzen dute Soraluzeke Udalaren lanpostuen zerrenda. Lanpostu horiek guztiek ezarria dute, arestian aipatutakoari jarraiki, beren hizkuntza-eskakizuna; 2.HE: 11 lanpostu; 3.HE: 10 lanpostu; 4.HE: 5 lanpostu.

Aurreko plangintzaldian, titularitate aldaketak baliatuz batez ere, HE aldatu zitzairen hainbat lanposturi, lanpostuen funtzioak aztertu ondoren, ikusi baitzen lanpostuok zeukaten HE-k ez zuela lanpostuaren lan-jardunak euskaraz burutzeko gaitasunik bermatzen.

VI. Plangintzaldiari begira aldaketa gehiago egin edo egingo zaizkie lanpostu-zerrendako hizkuntza eskakizunei. Lanpostuetako bat (Administrazioeko erdi mailako teknikaria) aurten bertan sortua da eta lanpostuaren funtzioak aztertu ondoren, 4HE ezartzea erabaki da. Hizkuntza Eskakizunean aldaketa jasango duten beste lanpostuak udaltzain lanpostuak dira. Egun lanpostuak duten 2.HE lanpostuaren funtzioak euskaraz burutzeko nahikoa ez delakoan, eta egun lanpostuok betetzen dituzten guztiek 45 urteak beteak dituztela eta, ondorioz, eskakizun berria egiaztatzenetik salbuetsita daudela aprobetxatuz, 3.HE ezartzea erabaki da.

Soraluzeko Udalaren kasuan, bi dira lanpostuak daukan HE egiaztatu gabe daukaten langileak; langile hauek, baina, adinagatik salbuetsita daude. Beste langile batek lanpostuak daukan HE baino bat gutxiago dauka egiaztatuta; langile honen kasuan, baina, Dekretuak horretarako aukera ematen du, hautagaietako inork ez baitzuen 4HE egiaztatu.

5.1.2. Lanpostuen Derrigortasun Datak

Arestian aipatutako Dekretuak dio, derrigortasun-datatik aurrera hizkuntza eskakizunak egiaztatuta beharko duela egon eta kasu horretan betebeharrak hori derrigorrezkoa dela dagokion lanpostuan sartzeko eta lanpostu hori bete ahal izateko. Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko duela zein den derrigorrezko eskakizunen portzentajea, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna.

VI. Plangintzaldia hasi den honetan 2016ko erroldaren arabera datuak daude indarrean, horiek baitira plangintzaldia hasi zenean argitaratuta zeuden azkenak. Datu horien arabera, Soraluzeko Udalaren derrigortasun indizea (euskaldunak +ia euskaldunak/2) % 67,08 da. Nolanahi ere den, derrigortasun indizeak gutxieneko muga zehazten du. Izan ere, Soraluzeko Udalaren kasuan, lanpostuen %100ak dauka Derrigortasun Data ezarria.

5.1.3.- Lanpostuen zerrenda.

Hauxe da Soraluzeko Udalaren Lanpostu Zerrenda. Bertan jasota daude lanpostu bakoitzaren Hizkuntza Eskakizuna eta Derrigortasun Data, baita, lanpostuak betetzen dituzten langileen euskara maila ere.

LANPOSTUA	HE	DD	IZENA	J.DATA	ENA	EM
Idazkaria	4HED	90/12/31	SI, Daniel	75/09/05	44148408	3HE
Administrazio tek,	4HED	18/01/01	-----	-----	-----	----
Administraria	3HED	98/12/31	SA, Begoña	75/09/22	15396220	4HE
Administrari Lag.	3HED	00/12/31	MB, Nerea	65/03/07	15372718	3HE
Kontablea	4HED	13/01/01	GE, Bakarne	67/11/13	15994758	4HE
Administraria	3HED	94/12/31	AT, Oihana	71/09/02	15389424	3HE
Aparejadorea	4HED	98/12/31	JL. Aitor	73/10/22	72448216	4HE
Obra arduraduna	3HED	13/01/01	EO, Iñaki	69/08/01	72443239	3HE
Peoia	2HED	13/01/01	LG, Francisco	67/01/13	15375505	0
Peoi-ehorzlea	2HED	13/01/01	SG, Ander	76/12/16	15397855	2HE
Peoi-ehorzlea	2HED	13/01/01	EB, Dario	61/06/29	15365031	0
Kirol Tekn.	3HED	06/01/15	GA, Maria	74/08/14	15395837	3HE
Udaltzainburua	3HED	93/12/31	AU, Iñaki	60/03/02	15362669	3HE
Udaltzaina	3HED	18/01/01	IL, Nestor	60/03/12	15360610	3HE
Udaltzaina	3HED	18/01/01	GL, L. Angel	57/02/10	15353243	2HE
Udaltzaina	3HED	18/01/01	OI, Gotzon	62/09/15	15365177	3HE
Udaltzaina	3HED	18/01/01	MI, Eulogio	63/10/23	15370681	2HE
Liburuzaina	3HED	91/12/31	AA, Amaia	58/08/29	15354998	3HE
Eusk/Kult tekn.	4HED	08/11/30	LS, Mikel	69/09/29	34099536	4HE
Ludotekaria	3HED	08/11/30	BC, Nerea	81/08/06	72584873	3HE
Ludotekaria	3HED	96/12/31	-----	-----	-----	----
G. Laguntzailea	3HED	93/12/31	OG, Ana	62/01/11	15365137	3HE
G. Laguntzailea	3HED	08/11/30	BA, Irantzu	69/03/18	15380966	3HE
Etxez Etxeko Lag.	2HED	99/12/31	EA, Rosa	59/10/26	15358362	3HE

Etxez Etxeko Lag.	2HED	99/12/31	AU, M ^a Jesus	68/08/24	15379328	2HE
Etxez Etxeko Lag.	2HED	99/12/31	BA, Iratxe	70/10/09	15385747	2HE
Etxez Etxeko Lag.	2HED	99/12/31	UA, A. Isabel	67/10/31	15348887	2HE

6.- PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.

Soraluzeko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko arduradun nagusia Udaleko Sailen Koordinazio Batzordea da. Langintza horretarako informazioa Hizkuntza Politikaren Zerbitzuak bilduko du.

Ebaluazioak hiru epealdi hauek izango ditu:

- Urtez urteko ebaluazioa: urte bakoitzeko neurrien betetze maila jasotzen duen ebaluazioa egingo da.
- Tarteko ebaluazioa: plangintzaldiaren erdialdean, 2020ko amaieran, helburuen eta neurrien betetze mailaren egoera jasoko da.
- Amaierako ebaluazioa: 2022ko amaieran planaren betetze maila zenbatekoa izan den aztertuko da.

7.- ANTOLAKUNTZA EGITURAK ETA BALIABIDEAK.

Orain artean euskararen erabilera normalizatzeko planaren kudeaketa erakundearen bazter batean geratu da. Plangintzaldi berrian, euskararen normalizazioaren kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorraren barruan txertatu beharra dago, planaren eragina behar bezala ziurtatzeko.

Erakunde baten ordezkari nagusiak bere egin beharko luke euskararen normalizazioaren eginkizuna, bere gobernu programan helburu estrategikoen artean dagoela adierazi publikoki, eta hurbilen dituen ordezkarietara jakinarazi euren eginkizuna ere badela helburu horiek lortzea.

Kudeaketa berriak erakunde-ordezkarien konpromiso osoa eta egiazkoa eskatzen du, arduradun eta atalburuen inplikazio zuzena eta langileen parte-hartze aktiboa. Zeharkakotasuna bermatzen da horrela, euskara erakundearen kudeaketa sisteman integratuta dago.

Euskara plana kudeatuko da erakundearen ohiko bileretan, Udaleko Sailen Koordinazio Batzordearen bileretan hain zuzen ere, non biltzen diren sailtako arduradun teknikoak, Udaleko Idazkaria eta Alkatea. Aipatutako hauek izango dira planaren ardura hartuko dutenak, euskara teknikaria horien aholkulari izatera pasatuko delarik, erakundearen ohiko kudeatzaileei hizkuntza normalizazioan laguntzeko.

8.– ETORRI BERRIENTZAKO PROTOKOLOAK.

Helburua da datozen langile berriak euskaraz lanean hastea modu naturalean, gainera, pizgarria izan liteke lantaldearen hizkuntza ohiturak aldatzeko. Horretarako, lanean hasi bezain pronto hizkuntza-politikan hartutako erabakien berri eman behar zaie, eta harrera protokoloa da horretarako bidea. Protokolo honetan oinarritzko urrats batzuk baino ez dira aurreikusi.

Pertsonal arduradunak jakinarazpenak helaraziko dizkie interesdunei.

Pertsona arduraduna izaten da normalean langile berriak noiz hasten diren dakien lehenengoa. Hori horrela, berari dagokio protokoloaren ekintza hurrenkera abiatzea. Berak jakinaraziko die interesdunei noiz hasiko den langile berria, erakunde-ordezkariari, Idazkariari, arloko-arduradunari, balego, eta euskara teknikariari, hain zuzen ere.

Erakunde ordezkariak eta arduradunak harrera egingo dute euskaraz.

Lehenengo egunean, hasiberria dagokion lantokira bertaratzen denean, kasuan kasuko erakunde-ordezkariak, idazkariak eta arloko-arduradunak, balego, artatu beharko lukete. Langileari bere funtzioak azaltzen zaizkionean, hizkuntza kudeaketaren gaineko erabakiak eta jakingarriak ere aipatu beharko zaizkio.